



## PRENTSA-OHARRA

# 2018ko sanferminei buruz sortutako 228.000 txioek 3.000 milioi inpaktu potentzial eragin dituzte Twitterren

600.000 edalontzi berrerabilgarri baino gehiago banatu dira orain arte, eta horrekin ekidin da erabili eta botatzeko 2 milioi edalontzi baino gehiago erabiltzea

Babes Zibileko Tokiko Batzarrak festek sare sozialetan izaten ari diren inpaktuaren berri izan du gaur goizean. Twitterren, 2018ko sanferminei buruz orain arte sortutako 228.104 txioek 3.000 milioi inpaktu potentzial baino gehiago eragin dituzte. Gainera, txio horien % 14tan irudi edo bideoak ageri dira, festa bera eta argitaratzen dituztenen bizipenak deskribatzen.

Twitterreko argitalpenetako hizkuntza erabiliena gaztelania da (197.868 txio), bigarrena, ingelesa (11.374 txio), eta hirugarrena, euskara (6.327 txio). Gehien erabili diren hitzak 'Entzierroa' eta 'Iruña' izan dira, 35.000 eta 15.000 alditan baino gehiagotan, hurrenez hurren. Traolei dagokienez, festari eta hiruari erreferentzia egiten diotenak dira nagusi (#sanfermines2018, #Pamplona, #sanfermin2018, #SanFermin, #sf18), bai eta eraso sexistei buruzko udal kanpainen ingurukoak ere (#SanferminesSinViolencia, #Noesno). Twitterreko @SFerminOficial kontuak 1.300 jarraitzaile baino gehiago ditu, duela bi hilabete baino % 50 gehiago.

'Sanfermin ofizialak' Facebooken ere badu lekua. Orriak 16.580 jarraitzaile ditu 'Atsegin dut' sakatu dutenak argitalpenak partekatu eta bistartzeko. Zifra hori lau bider handitu da duela bi hilabetekoarekin alderatuta. Bestalde, sanferminoficial.com webguneak ere lau bider handitu ditu erabiltzaileen kopurua festak hasi zirenetik, eta ia 17.000 erabiltzaile berri ditu (16.948) uztailaren 5etik 9ra bitarte. Iaz, aldiz, 3.787 izan zituen. Guztira 22.874 saio abiarazi dira, hau da, lau bider handitu da kopurua (2017an 5.721 izan ziren).

### **600.000 edalontzi berrerabilgarri baino gehiago**

Babes Zibileko Tokiko Batzarrari jakinarazi zaio, baita ere, festetan, orain arte, 600.000 edalontzi berrerabilgarri baino gehiago banatu direla. Iaz, sanferminetan, guztira, 190.000 edalontzi banatu zitzaizkien ostalaritza-establezimenduei eta beste festagune batzuri. Festetako lehenengo lau egunetan 125.000 baso garbitu ziren; iaz, aldiz, 119.000 guztira. Udalaren esleipeneko lekuek (esate baterako Foruen plaza), kolektiboek lagatako espazioek, Labrit

1. orrialdea, (e)tik 3



pilotalekuak eta Zezen plazak, derrigorrean edalontzi berrerabilgarria eman behar dutenek, % 100ean ari dira hori betetzen.

Egindako kalkuluen arabera edalontzi berrerabilgarriek 2,5 milioi erabilera izan dituzte, eta horrek ekarri du asko murriztea erabili eta botatzeko edalontzien erabilera, ekidin baita 2 milioi edalontzi baino gehiago erabiltzea. Hondakinak sortzea ekidin eta kaleen garbiketa errazteko, eskatzen da edalontzia lurrera ez botatzea edo ez edozein lekutan uztea, hori eginda edalontzi horiek sistematik atera eta zabortegian amaituko baitute.

Beste hondakin batzuekin alderatuta, kaleetan duen eragina partziala da. Edonola ere, edalontzien pisua (6 gramo inguru) txikia da hondakin batzuekin alderatuta (plastikozko botilak, brickak, janarien hondakinak, kristalezko botilak), eta horiek isla handiagoa dute zaborren bilketaren datuetan. Egunero, Varazdin fundazioak edalontziak jaso eta banatzen ditu kanpainarekin bat egin duten establezimendu eta espazioetan, 5 furgonetarekin, eta lana ematen dien 30 laguni (iaz 3 furgoneta eta 20 langile izan ziren). Jaso, banatu eta albaranak kudeatzeko 20 minutu inguru behar izaten da establezimendu bakoitzean, eta goiz eta arratsaldeko txandetan egiten da; horretaz gain, izan daitezkeen aparteko gorabeherei erantzuten diete.

### **Salaketa bat ukituak egiteagatik**

Babes Zibileko Tokiko Batzordeak gaurko bileran jakin du sexu erasoekin loturiko salaketa bat izan dela, ukituak egiteagatik. Salaketaren ondoren, emakumearen eskura jarri dira Nafarroako Gobernuko EAZ zerbitzuaren baliabideak orientazioa eta laguntza judizial zein psikologikoa emateko, bai eta halako egoerei erantzuteko Udalak dituen laguntza-baliabideak ere. Protokolo berria abiaraztearekin, Iruñeko Udalak lortu nahi duen helburuetako bat da biktimei babesa ematea, hala arta eta laguntza ematearen aldetik nola ikuspegi informatibotik. Horren bitartez ekidin nahi da, uneoro, gizarteak edo komunikabideek erasoak jasan duten emakumeak bigarrenez ere biktima bihurtu ditzaten, eta galarazi nahi da emakume horiek estigmatizatu edo errudun sentitu daitezen.

Iruñeko hiriak, bertako erakundeak eta herritarrek berretsi egin nahi dute gaitz hau hiritik eta bertako jaietatik errotoz kentzeko konpromiso irmo eta argia, bat etorrita aurten abian jarri den kanpainaren leloarekin: "Eraso sexistarik gabe, Iruña aske". Horrenbestez, Udalak erasorik jasan dutenak eta herritarrak oro har animatu nahi ditu era horretako jokabideak salatzerako, hala ikuspegi judizialeko nola sozialetik, konbentzimendu osoa baitago arbuio aktiboa dela biderik onena jokabide gaitzesgarri horiei amaiera emateko.

Babes Zibileko Tokiko Batzordea erakunde-arte organoa da, festa-egun guztietan eta uztailaren 15ean biltzen da eta bertan Iruñeko Udaleko alor guztiak daude ordezkaturik. Halaber, honako erakunde hauek ere parte hartzen dute, besteak beste: Nafarroako Gobernuak, Udaltzaingoa, Foruzingoa, Polizia Nazionala eta Guardia Zibila; Osasunbidea, Gurutze Gorria eta DYA, eta Iruñerriko Mankomunitatea.



### ZIGOR KODEKO DEFINIZIOAK

---

- Sexu-erasoa: hor sartzen dira eduki sexualeko delituzko jokabideak, zeinetan larderia edo indarkeria egon den.
- Sexu-abusua: hor sartzen dira eduki sexualeko delituzko jokabideak, zeinetan ez den larderia edo indarkeriarik egon.
- Zigor Kodeko definizioak gorabehera, Iruñeko Udalak uste du salagarria dela pertsonen sexu-askatasuna hertsatzen duen edo eraso sexista den jokabide oro, eta arbuiorik irmoena merezi duela erakunde honen eta ordezkatzan dituen herritarren aldetik.

Iruñean, 2018ko uztailaren 11n